Arrigorriagako Udal Euskaltegia

2025-2026 ikasturteko memoria

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1.- Sarrera.....	2
2.- Baliabideen kudeaketa	2
2.1.- Giza baliabideak	2
2.2.- Diru baliabideak	5
2.3.- Beste baliabideak	5
3.- Aurreikusitako plangintzaren ebaluazioa eta betetze–maila	6
4.- Beste helburu batzuk.....	10
4.1.- Ikasturtearen balorazio orokorra.....	10
4.2.- Hurrengo ikasturterako kontuan hartu beharrekoak...	11
5.- Emaitzen azterketa_.....	12
6.- Ondorioak.AMIA.....	23

1.- SARRERA

Dokumentu honen bidez 2025-2026 ikasturtean zehar gertatutako gorabeheren balorazioa egin eta ikasturteko egitasmoan ezarritako helburuak aztertu nahi ditugu. Ikasturte amaieran zentroaren diagnosia lortu eta hurrengo ikasturteko egitasmoa osatzea da helburua, hain zuzen ere.

Halaber, HABEn euskaltegiaren funtzionamenduaren berri emateko dokumentua dugu berau.

2.- BALIABIDEEN KUDEAKETA

2.1.- GIZA BALIABIDEAK

Arrigorriagako Udalbatzak 2024ko azaroaren 28an ohiko osoko bilkuran honako hau adostu zuen:

"ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA DESEGITEA ONESTEA"

Beraz, 2025eko urtarriletik aurrera Arrigorriagako Udalak hartu du erakunde autonomoko baliabide guztien kudeaketa.

IRAKASLEEN KLAUSTROA

Jarraian agertu bezala egon da osaturik.

* Zuzendari akademikoa: Itziar Arteagoitia Alonso

* Irakasleak: Goikoana Gaztaka Gandarias
M.Josune Zamalloa San Miguel

Irakasle batzordeak 6 bilera egin ditu ikasturte honetan eta, besteak beste, hurrengo gaiak eztabaidatu dira:

- Taldeak osatu, ikasturteko eskola-orduen banaketa eta ikasturtearen antolamendua eta funtzionamendua.
- Ebaluazio diagnostikorako oharrak eta oro har ebaluazioaren gaineko irizpideak adostu ditugu.
- Tarteko ebaluaziorako oharrak (HABEren ebazpenak jasotzen dituen azterketen ezaugarriak gogorarazi, azterketa datetarako xehetasunak, tutoretzak eta abar).
- Kanpo ekintzak
- Publizitatea

- Tarteko ebaluazioaren eta azken ebaluazioaren ondorengo balorazioa
- Taldeen azken ebaluazioa
- Ikasturteko helburuen ebaluazioa
- Oporren antolaketa eta udan egin beharreko lana

ORGANIGRAMA



LANGILEEN KUDEAKETA

2025-2026 ikasturtean ere irakasle kontratatu bat ibili da lanean, irakasle finko baten ordez. Beraz, urritik ekainera 4 langile ibili dira euskaltegian; administraria, zuzendari akademikoa eta 2 irakasle.

Langileen prestakuntza:

1/ "Euskarazko arreta ematen trebatzea" ikastaroa (Bego Ealo)

2/ "Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara" web-mintegia (Itziar Arteagoitia)

3/ "Irakurketa erraza" web-mintegia (M. Josune Zamalloa eta Itziar Arteagoitia)

4/ "Nagusiei eskolak emateko ikuspegi didaktikoa" web-mintegia (Goikoana Gaztaka eta Itziar Arteagoitia)

5/ "Euskara eta etorkinak": irakaskuntzaren erronkak eta aukerak" web-mintegia (Goikoana Gaztaka eta Itziar Arteagoitia)

6/ "Adimen artifiziala euskararen irakaskuntza inklusiboan" web-mintegia (Itziar Arteagoitia)

7/ C2 maila prestatzeko ikastaroak, idatzizkoa eta ahozkoa (Goikoana Gaztaka)

8/ Sexu eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza saioa (Bego Ealo eta Itziar Arteagoitia)

2.2.- DIRU BALIABIDEAK

Aipatu bezala, 2025eko urtarriletik aurrera Arrigorriagako Udalak hartu du euskaltegiko baliabide guztien kudeaketa, diru baliabideak barne. Beraz, dauzkagun datuekin diru-iturriak baino ezin ditugu aztertu, gastuak Arrigorriagako Udalaren aurrekontuan txertatuta baitaude.

DIRU-ITURRIAK

1) HABE

Ikasturtea	Irakasle-orduak		Onartutako pertsonala			Aurreikusitako diru-laguntza		Aurreko urtekoarekin aldea %
	aurrez aurre	auto	Zuzendaria	Irakasleak	Adm Lag.	Guztira	hainbanatua	
20-21	2.565,00	245,00	1	3.5	1	206.229,30	206.229,30	%+53,14
21-22	2.355,00	110.60	1	3	1	190.399,25	190.399,25	%-7,67
22-23	2.470,00	127,90	1	3	1	203.763,68	203.763,68	%+7,02
23-24	2.298,00	0	1	2,5	1	195.912,73	195.912,73	%-3,8
24-25	1.665,00	0	1	2	1	184.594,90	184.594,90	%-5,77
25-26	1.665,00	0	1	2	1	188.514,56	188.514,56	%+2.12

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, HABEk diru-laguntza %2,12 igo du, zuzendaria, 2 irakasle eta administrari laguntzailea finantzatzeko beste izan da, ordainsarien urteko igoera aplikatu baitu. Dena den, pertsonalaren gastu errealetik oso urrun dago HABEtik datorren diru-laguntza, hau da, Udalhitzek jasotzen dituen gure mailetatik.

2) Ikasleen matrikulak

Aurrekontutik ateratako datuak direnez, urteka agertzen dira.

Kontzeptua	Aurrekontu kopurua	Jasotako kopurua	Aldea
2020	32.020,00 €	11.094,93 €	-14.008,38 €
2021	15.020,00 €	16.117,10 €	+ 1.097,10 €
2022	15.020,00 €	10.899,80 €	- 4.120,00 €
2023	15.020,00 €	11.661,00 €	-3.359,00 €
2024	15.020,00 €	8.262,50 €	-6.757,50 €
2025	15.000,00 €	7.979,50 €	-7.020,50 €

2025.urtean agertzen den kopurua 2025-2026 ikasturteari dagozkion matrikulak dira. Ikasle kopurua aurreko ikasturtekoaren antzekoa izan denez, matrikula kontzeptuan jasotako kopurua ere antzekoa izan da. Bestalde, aipatzekoa da, aurrekontuan jarritako kopurua aurreko urtekoa izan dela.

2.3.- BESTE BALIABIDEAK

Ikasturte honetan ez dugu erosketarik, ez inbertsiorik egin.

3.- AURREIKUSITAKO PLANGINTZAREN EBALUAZIOA ETA BETETZE MAILA

1.- HELBURUA: Azken urteotan hartutako bideari jarraitzea: irakasleok etengabeko elkarlanean jarraitzea didaktika mailako hausnarketa bultzatuz eta programazioak osatuz.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
ONA	- Primeran B2ko unitate gutxi landu ditugu, eta C1 mailan ere iaz baino gutxiago. Ikasbileko sekuentziak, ordea, asko erabili ditugu, gaurkotasun handiko gaiak eta eduki gramatikalak lantzeko aukera eskaini baitute. - Bilera formalik egin ez arren, didaktikako zalantzak sortu ahala adierazi eta argitu ditugu. Era berean, sarritan materiala partekatu eta elkarlanean jardun dugu. - Mintzamenerako lantzeko hainbat iritzi artikulu gorde ditugu C1 mailan, eta B2 mailan gaia garatzeko eta elkarrizketarako eredu asko sortu ditugu. - Banabil A1 liburua aztertu eta tarteka erabili dugu jubilatu taldeekin batez ere. - A1 mailako programazioa hobetu dugu ariketak zuzendu edota txukunduz eta osatuz. - Itziar Arteagoitiak HABEk antolatutako "Ahoskeraren eta prosodiaren teoriatik praktikara" izeneko mintegian parte hartu du. - Josune Zamalloak eta Itziar Arteagoitiak HABEk antolatutako "Irakurketa erraza" izeneko web-mintegian parte hartu dute. - Goikoana Gaztakak eta Itziar Arteagoitiak HABEk antolatutako "Nagusiei eskolak emateko ikuspegi didaktikoa" izeneko web-mintegian parte hartu dute. - Goikoana Gaztakak eta Itziar Arteagoitiak HABEk antolatutako "Euskara eta etorkinak: irakaskuntzaren erronkak eta aukerak" izeneko web-mintegian parte hartu du.	- Oro har berdin jarraitzea, baina saiatzea B2 eta C1 mailetan programazioaren ardatza dena zehazten.

	- Itziar Arteagoitiak HABEk antolatutako "Adimen artifiziala euskararen irakaskuntza inklusiboan" izeneko web-mintegian parte hartu du. - Goikoana Gaztakak IVAPek antolatutako C2 mailako ikastaroa egin du, idatzia (16 ordu) eta ahozkoa (10 ordu) - Ekainean Bego Ealok eta Itziar Arteagoitiak Arrigorriagako Udalak antolatutako sexu eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza saioan parte hartu dute.	

2.- HELBURUA: Jarraitzea programazioetan genero ikuspegia kontuan hartzen eta ikasleen gabeziei aurre egiteko gutxiengo neurriak zehazten. Hori guztia curriculumean jasota uztea.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
ONA	- Ikasturte osoan zehar emakumeek sortutako testuak erabili ditugu (Onintza Enbeitia, Oihana Arana…), baita ipuin eta istorioak ere (Karmele Jaio, Katixa Agirre, Goiatz Landadibar…). Bertan sarritan genero ikuspegia, indarkeria, lana eta zaintza nola uztartu, eta soldata arrakala besteak beste izan ditugu hizpide. - Gelara eraman dugun materiala aztertu eta zuzendu dugu genero ikuspegia. - Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egin dugu. - ECPan jaso dugu guztia	BERDIN JARRAITZEA

3.- HELBURUA: Bitartekotzaren inguruan trebatzen hastea.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
EZ NAHIKOA	- Irakurri, aztertu eta ulertu dugu bitartekotzaren informazioa (Liburu osagarria, Hizpide aldizkariko artikuluak…) - Aztertu ditugu jarduera ezberdinak, baina azterketako atal horri begira zenbait eduki landu arren, beren-beregi ez dugu ikasleekin landu. - Jaso ditugu egunkariko eta bestelako grafikoak bitartekotza ariketak prestatzeko.	- C1 mailako ereduak bildu, moldatu edota sortu. - Jarduera mota hori lantzen hastea B2 eta C1 mailetako ikasleekin. - Grafikoak, taulak, mapak eta abar biltzen jarraitzea ariketak sortze aldera

4.- HELBURUA: Jarraitzea euskararen erabilera sustatzen, eta bereziki jubilatuekin, kanpo ekintza gehiago programatzea.		
BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
NAHIKO ONA	- Urriaren 28an Jubilatu taldeekin Euskararen Etxean bisita gidatua egin genuen. - Hilero eman diegu Arrigorriagan eta Abusun euskaraz antolatutako ekintzen berri, iragarki taulan jarriz eta ikasleak parte hartzera animatuz. Dena den, horren berri izatea batzuetan kostatu zaigu, nahiz eta Kultur etxeko langile bati behin baino gehiagotan informazioa eta kartelak pasatzeko eskatu. - Martxoaren 7an Txangoa antolatu dugu Nafarroara Leitzako Peru-Harri museoa bisitatu eta Lekunberriko sagardotegi batean bazkaldu. 45 ikasle inguruk eman dute izena. - Euskarazko komunikabide eta euskara ikasteko guneen berri eman diegu ikasleei (berria, Argia, Ikasbil, Ingura…)eta	- Ikasleak eskola orduetatik kanpo ikasgelatik ateratzea zaila izan arren, prest daudenekin, jubilatuekin, adibidez, ahal den neurrian kanpo ekintza gehiago antolatzea.

	erabiltzera animatu ditugu. -Otsailean "Egunean behin" lehiaketan parte hartzera animatu ditugu ikasleak eta talde berria osatu dugu, euskaltegian bertan lehiaketa eginez eta opariak banatuz. Guztira 25 lagun gaude taldean. - Euskaltegiko liburuak maileguan eskaini dizkiegu ikasleei eta ikasturte honetan 20-25 liburu mailegatu dira. - Ekainaren 2an Bilboko Udalak antolatzen dituen bisita gidatuetako batean parte hartu genuen. Jubilatu asko animatu ziren, eta interesgarria iruditu zitzaien. - Jubilatu talde guztietan bazkari edo hamaiketakoa egin dugu, eta beste talde gehienetan kafea hartzera joan gara, eta euskaraz aritu dira ikasleak.	

4.- BESTE HELBURU BATZUK

4.1.- IKASTURTEAREN BALORAZIO OROKORRA

Udal Euskaltegiko irakasleek ikasturtearen amaieran egiten dugun balorazioan izandako zailtasunak, indar-guneak eta hobetzeko proposamenak aztertzen ditugu, hurrengo ikasturtean kontuan izate aldera.

Hona hemen azpimarratutakoak:

- **Asistentzia eta bajak:** asistentzia %72 izan da; hortaz, 4 puntu egin du behera. Ikasturtean 19 baja eta 8 alta izan ditugu. Zenbat eta asistentzia hobea, orduan eta emaitza hobeak dituzte, baina ezinezkoa da ikasle guztiek eta ikasturte osoan zehar %90eko asistentzia izatea. Gainera, baja diren ikasleak, askotan, asistentzia txarrekoak izaten dira.

- **Berbalagun:** 2025-2026 ikasturtean, urrian, 2 berbalagun talde osatu ziren, bata goizean eta bestea arratsaldean. Goizean, 7 partaide izan ziren eta arratsaldean hasieran 8 izan ziren, baina urrian eta azaroan bi alta izan arren, urtarrilean horiexek berberak baja izan zirenez, 8 ibili dira hilabete gehienetan. Partaide gehienak urtetan ibilitakoak izan dira eta datorren urtean jarraitzeko asmoa agertu dute.

- **Asebetetze inkesta**: ikasturte honetan bai pasatu diegu asebetetze inkesta ikasleei, eta aurten ere, emaitzak oso onak izan dira: %96,3ren ustez, balorazio orokorra oso ona edo ona izan da; %100en ustez, irakasleen lana eta jasotako harrera oso ona edo ona izan da; ikasle bakar bati ez zaio gustatu erabilitako materiala eta metodologia; %65ek adierazi dute hurrengo ikasturtean jarraitzeko asmoa, eta %3,5ek ez daki oraindik.

- **ECP (Euskaltegiko Curriculum proiektua):** ikasturte honetan oraindik zenbait puntu osatu edo gehitu ditugu HABEk egindako feedbackean adierazi bezala. Besteak beste, bitartekotza eta desgaitasunen bat duten ikasleen beharrei nola erantzun eta materiala egokitzeko irizpideak.

4.2.- HURRENGO IKASTURTERAKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

PROPOSAMENAK
1. Azken urteotan hartutako bideari jarraitu: irakasleok etengabeko elkarlanean jarraitu didaktika mailako hausnarketa bultzatuz, bereziki bitartekotzaren inguruan trebatzen jarraitu. 2. Jarraitu programazioetan genero ikuspegia kontuan hartzen eta desgaitasunen bat duten ikasleentzako materiala egokitzen. 3. Adimen Artifizialaren inguruko ikuspegia eta haren erabilerari buruzko irizpideak zehazteko hausnarketari ekin. (jarrera: debekatzea, sustatzea edo erabilera jakin batzuetara mugatzea)

5.- EMAITZEN AZTERKETA

Azken urteotan bezalaxe, HABEren Batzorde Akademikoak onartutako Oinarrizko Adierazleen sistema jaso badugu ere, zenbait moldaketa egin ditugu. Auto-ebaluazio tresna honen bidez, gure euskaltegiaren zerbitzu-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horrela, joera zein den antzematearren, Arrigorriagako Udal Euskaltegiari dagozkion azken bost urteotako datuak eskaini ditugu posible izan den kasu guztietan.

Hauexek dira aztertutako adierazleak:

1.- Ikasleak
2.- Talde-ratioa
3.- Ikasleen banaketa mailetan
4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa
5.- Ikasleak irakasleko
6.- Ikas sistemaren tipologia
7.- Birmatrikula
8.- Asistentzia
9.- Lorpenak
10.- Egiaztapenetako emaitzak

1.- Ikasleak

Definizioa

Aztergai ikasturteetan euskaltegian aritutako ikasle-kopuruak eta handitze edo txikitze ehunekoak.

Adierazlea

Jardueraren handiagotze /txikiagotzea islatu nahi du

Azalpena

2025-2026 ikasturtean ikasle kopurua zertxobait handiagoa izan da, baina esan genezake irakasle kopuru bera eta talde kopuru bera izanda egonkortu dela ikasle kopurua.





2.- Talde-ratioa

Definizioa

Batez beste, taldeetan egon den ikasle-kopurua.

Adierazlea

Eragiketa: eskainitako ikasle-orduen batura zati taldean emandako orduak

Azalpena

2025-2026 ikasturtean 7 barik, 8 ikasleko taldeak sortu behar izan ditugun arren, ratioa igo dugu zertxobait.
Egia esan, bi talde osatu ditugu 8 ikaslerekin; beste guztiak, ostera, handiagoak izan dira.



3.- Ikasleen banaketa mailetan

Definizioa

Ikasturte jakin batean maila bakoitzeko matrikula-kopurua, ehunekotan emana.

Adierazlea

Eragiketa: maila bakoitzean egindako matrikulak bider ehun zati euskaltegian matrikulatuak.

Azalpena

Ikasturte honetan A1 eta A2 mailetan ikasleen %52,83 matrikulatu dira. Hau da, aurreko ikasturtearekin alderatuta %8 gutxiago. Dena den, oraindik jubilatuen taldeak A1 eta A2 mailakoak direnez, portzentajea altua da.

Bestalde, C1 mailako 2 talde osatu ditugunez, 330 orduko talde handia eta 165 ordukoa ere 13 ikaslerekin, maila honetako matrikula-kopurua askoz handiagoa izan da.

Hortaz, antzeko joera errepikatzen ari da.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
A1 MAILA	28,46	48,33	46,15	35,63	32,08
A2 MAILA	14,63	8,33	10,49	25,29	20,75
B1 MAILA	2,44	13,33	5,59	10,34	11,32
B2 MAILA	21,14	0,00	18,18	9,20	10,38
C1 MAILA	33,33	30,00	19,58	19,54	25,47

4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa

Definizioa

Batez beste, zer iraupen-maila duten euskaltegian emandako ikastaroek.

Adierazlea

"Talde-orduak zati talde-kopurua" eragiketak emango digu kopurua

Azalpena

2025-2026 ikasturtean eutsi egin diogu talde kopuruari eta talde-orduei; beraz, ikasleen orduen batez bestekoa ere aurreko ikasturteko berbera izan da.



5.- Ikasleak irakasleko

Definizioa

Irakasle bakoitzaren ardurapean zenbat ikasle dauden.

Adierazlea

Eragiketa: zenbat ikasle dituen euskaltegiak zati irakasleak

Azalpena

Ordu gutxiko ikastaroak antolatzeak irakasleek ardurapean izan beharreko ikasle kopuruak gora egitea dakar.
Batez bestekoa 35,33 ikaslera igo da berriz, baina oraingoan irakasle batek 65 ikasle izan beharrean, 50 izan ditu. Hortaz, antolaketa hobea izan dugu.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
Arrigorriagako UE	24,6	30	35,75	31,66	35,33

6.- Ikas sistemaren tipologia

Definizioa

Auto-ikaskuntza bidez ikasten ari direnen ehunekoa. Portzentaje horretatik ehunera bitartean ari direnak aurrez aurreko ikasketa sisteman ari direnak dira

Adierazlea

Eragiketa: auto-ikaskuntzan egin diren matrikulak bider ehun zati egin diren matrikula guztiak

Azalpena

Azken ikasturteotan joerari jarraituz, ikasle gutxik eman dute izena auto-ikaskuntzan, eta laugarren ikasturtez ez dugu talderik osatu.
Gainera, azken bi ikasturteetan irakasle gutxiago izanda, aurrez aurreko taldeak lehenetsi ditugu, eta 2026-2027 ikasturtean eskaini ere ez dugu egin.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
Arrigorriagako UE	10,56	0	0	0	0

7.- Birmatrikula

Definizioa

Aurreko ikasturtean aritu eta hurrengoan berriro ere matrikulatutako ikasle-kopurua

Adierazlea

Ehunekotan emana, ikasturte bateko datuak aurrekoarekin alderatuz. "Euskaltegian berriro matrikulatzen den ikasle-kopurua zati euskaltegian matrikulatua bider ehun" eragiketak emango digu horren berri.

Azalpena

2025-2026 ikasturtean ere birmatrikula kopuruak gora egin du. B2 eta C1 mailetako taldeetan aurreko ikasturteko ikasle askok eman dute izena eta jubilatu taldeetan ia ikasle guztiak izan dira aurreko ikasturteetan ibilitakoak. Horrek birmatrikula kopuru handiagoa izatea ekarri digu.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
Arrigorriagako UE	13,8	33,38	20,98	53,18	54,71

8. Asistentzia

Definizioa

Aurrez aurreko saioetan ikasleriak izan duen presentzia.

Adierazlea

Ehunekotan eskainia. "Ikasleak jasotako eskola-orduak zati emandakoak bider ehun" eragiketak emango ditu horren berri.

Azalpena

Urtero aipatu bezala, ez dugu asistentzia hobetzerik lortu. Are gehiago, 2025-2026 ikasturtean lau puntu egin du behera. Egia da gure moduluak luzeak direla eta batez ere, 4 egunetako taldeetan ikasleek huts egite gehiago egiten dituztela, eta ziur asko izena ematen dute jakinda egunero etorriko direla.



9.- Lorpenak

Definizioa

Azpi-mailaren bat gainditutako ikasle kopurua mailaka, ehunekoetan emanda.

Adierazlea

Ikas prozesuan zehar ikasleriari aitortutako azpi-maila(k) kontuan hartuta ikasleen ehunekoek emango digute horren berri.

Azalpena

Zalantza barik, emaitza onak izan dira, azpi-mailarik gainditu ez duten ikasleen kopuruak behera egin baitu nabarmen, eta azpi-mailaren bat gainditu dutenak gora. Maila guztietan egin du gora, A2 mailan izan ezik. Izan ere, A2 mailan jubilatuak baino ez ditugu izan.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
0	51,2	49,16	58,74	61,05	36,79
>=1	48,8	50,84	41,26	38,95	63,21



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
A1	29,41	36,21	31,82	6,25	50,00
A2	66,67	60,00	33,33	68,18	63,64
B1	0,00	56,25	75,00	40,00	58,33
B2	61,54	0,00	57,69	20,00	63,64
C1	50,00	69,44	42,86	71,43	81,48

10.-Egiaztapenetako emaitzak

Definizioa

Egiaztapenetara matrikulatuetatik zenbatek gainditu duten egiaztapena.

Adierazlea

Ehuneko bat da: Egiaztapena gainditutako ikasle kopurua bider ehun, zati egiaztapenetara aurkeztuak.

Azalpena

A1 mailan oso emaitza onak izan dira eta A2 mailako azterketarik ez du inork egin. B2 eta C1 mailetan, ostera, beherakada handia izan dugu gainditze tasan.
Gure ustez, oro har ikasleen maila gero eta eskasagoa da eta horrek azal ditzake emaitza kaskar horiek.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
B1 MAILA	0	50	0	50	50
B2MAILA	77,7	75	66,66	87,5	42,85
C1MAILA	18,18	43,75	41,66	28,57	17,65

OHARRA: 1. deialdietako datuak baino ez daude.



	2021/22	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26
A1 MAILA	40	100	78,57	0	100
A2 MAILA	72,7	66,66	0	77,77	0

6.- ONDORIOAK. AMIA

	AUKERAK	MEHATXUAK
INGURUNEA	• Oraindik bezero potentzial asko: biztanleriaren %36,33k ez daki euskara (2021eko datuak), eta euskararen erabilera eskasa da. • Euskararen arloan badaude gizartea aktibatzeko errotuta dauden ekintzak (Euskaraldia, Korrika…) • Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, doakotasunean aurrerapausoak eman dira. • Euskara lekua hartzen ari da mundu digitalean, hizkuntza gutxitua izan arren.	• Sektoreak ez du ikusgarritasunik, eta etorkizuna kolokan dago. • Euskararen normalizaziorako baliabide ekonomikoak ez dira behar bestekoak. • Herritar guztiek ez dute euskara ikasteko aukera bera, arrazoi ekonomikoak, sozialak edota profesionalak tarteko. • Euskararen erabilera eta balio eskasa gizartean. • Gazteek gehienbat D ereduan ikasten dute eta tituluak eskuratzen dituzte. • Ezagutza/erabilera/egiaztapena. Horien uztarketa zaila.
	INDARGUNEAK	**AHULEZIAK**
EUSKALTEGIA	• Langile profesionalen esperientzia, jakintza metatua eta inplikazio maila altua. • Tasen igoerarik ez, eta langabetuek ezer ez ordaintzea. • Ikasleen asebetetze- maila altua. • Birmatrikula kopurua	• 2026-2027 ikasturtetik aurrera irakasle 2 baino ez. • Eskaintza murriztu behar izatea irakasle gutxiago egoteagatik. • Ikasleen baja kopurua eta asistentzia